

EUSKARA

UZTAILA ABUZTUA IRAILA 2019



AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

**B**ilbao



*Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao leku egokia  
da kultura praktika, prozesu, esperientietarako  
espazio gisa bizitzeko.*



- 7 *Artearen kideak*. Fernando Pérez. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko Zuzendaria
- 10 Kodeen mundutik egiteko dagoen pentsamendura
- 12 Barnera begira Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon
- 14 Sorkuntza garaikidearen kartografia

## **PROGRAMAZIOA**

### **/Arte biziak**

- 18 Pablo Esbert Lilienfeld eta Federico Vladimir Strate Pezdirc. *Itsas hondoan, dragoi bat*. Dantza/performancea
- 20 Olivier Dubois. *My body of coming forth by day*. Dantza. Dantzaldia 2019.
- 22 Ixiar Rozas. *Fonografía*. Dantza/laborategia. Dantzan Bilaka 2019
- 22 Bilboko Udal Bandaren kontzertuak. Musika

### **/Arte garaikidea**

- 24 *Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa*. Erakusketa
- 26 *consonni radio AZ*-rekin. Egonaldi artistikoak
- 28 Naiara Goikoetxea. *Hiru graziak*. Fatxada Proiektua
- 30 Nestor Lizalde. *Akelarre elektrikoa*. Instalazioa
- 32 *Identidata, identitateei buruzko proiektu kolektiboa*. Instalazioa
- 34 *Komisariotzaren nazioarteko sinposioa. Erakusketaren saiakera (1977-2017)*
- 36 Leire Urbeltz. *Las Partes de La Malinche*. Fatxada Proiektua
- 38 Susana Blasco. Fatxada Proiektua
- 40 *Komisario Berriak*. Erakusketa

### **/Zinema eta ikus-entzunezkoak**

- 42 *Irudikatutako hiria*. Zinemateka
- 45 *Zinemaren historiako 50 harribitxi* Zinemateka
- 47 *Udako Golem*. Zinema





### **EGONALDI ARTISTIKOEN PROGRAMA**

- 50 Tana Garrido. *Nace parda y se blanquea*. Praktika artistikoak
- 52 Dantza garaikideko egoitzak. Dantza garaikidea
- 54 Ateak zabalik sorkuntza artistikorako

### **HEZKUNTZA PROGRAMA**

- 60 Kultura digital eta teknologiako laborategia
- 61 PlayTime Laborategia
- 62 Robotika, programazio eta bideojokoen diseinuko tailerrak
- 63 Jokuplay

### **AGENDA**

- 66 Agenda
- 70 Informazio orokorra





# Artearen kideak

Fernando Pérez

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko zuzendaria. Gizarte eta Kultura Garaikideko Zentroa

Kultura garaikideak, artearen eta sormenaren bidez, behar den jakintza sor dezake, pertsonen hazkuntzan laguntzeko eta gizarteak kontzientzia kritikoagoa eta askotarikoagoa izan dezan lortzeko. Neurri handi batean, artistek dute gaitasuna egunerokoa birdimentsionatzeko. Gizarteak haien begirada berezia eta alternatiboa behar du, ñabarduraz eta berezitasunez beteriko begirada hori. Ezinbesteko garrantzi soziala izan dezakete, kultura garatzeko, haren adierazpide guztietan.

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren ustez, artistak ezinbesteko konplizeak dira, zentroak gizarte eta kultura garaikidea lotzeko duen zeregina betetzeko, eta bide emateko hizkuntza garaikideei buruzko jakintza eta hausnarketarako sarbide unibertsalari. Gure programazioaren parte dira, kultura bultzatzeko eredu partekatua abiaburutzat hartuta, maila askotan eta formatu berrietan egituratua.

Horregatik, lanean aritzen gara Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao kultura garaikidera sartzeko plataforma bat izan dadin artistentzat eta sortzaileentzat, gizartearekin hizketan. Espazio dinamiko bat, egoteko modukoa, baldintza egokiekkin sorkuntza eta ikerketa artistikoa sustatzeko; leku publikoa, artistek haien lana aurkeztu eta ezagutzera eman dezaten. Aukera izan dezaten beren prozesuak eta praktikak ikusleen komunitateekin sortzeko, probatzeko, partekatzeko eta agerian jartzeko.

2019an, [Artista Az Kideak](#) proposamena jarri dugu abian, 2019-2023 Proiektu Programaren barruan, artistekin eta artisten kolektiboekin elkarlanean aritzeko itdoan, Zentroa eta sortzaileen lana batera



Artistek beraien prozesuak eta praktikak ikusleen komunitateekin sortzeko, probatzeko, partekatzeko eta agerian jartzeko lekua izan nahi dugu.



uztatu nahian, ekoizteko prozesuan bestelako erritmo bati bidea emanez, sinergiaz baliatuz eta esperientzia tekniko profesionala partekatuz. [Artista Az Kideak](#) proiektuak, gainera, agerian jartzen du artisten ikerketa-lana, eta hori bizitzan nola islatzen den, neurgarriak izan behar duten zenbait balioen bidez: zoriontasuna, irribarrea, sortzeko ahalmena...

2019an eta 2020an, María Ibarretzek eta Alaitz Arenzanak eratzten duten [Sra. Polaroiska](#) kolektiboa eta [Oscar Gómez Mata - L'Alakran](#) dira [Azkuna Zentroko artista Az Kideak](#). Haien lan artistikoetan, Azkuna Zentroa sortzeko tokia da, esperientzia hori ikusleekin partekatzeko, antzerkiaren, ikus-entzunezkoen edota dantzaren bidez; betiere erabiltzaileen eta ikusleen parte-hartzea gailenduta.

Harreman paralelo eta konplize horrek aukera ematen digu artearen kide egiteko, sorkuntzako praktikan laguntza emateko, ekoizteko prozesuan bestelako erritmoak izan daitezen, urteko ekoizpenetik hara, eta esperientzia garaikidea erakusteko era askotako ikusleen komunitateei, gure ustez, proiektu artistikoa hazi eta eraldatu beharreko zerbait bizia delako. Haiak laguntza eman, ekarpena egin, eta programazioa osatuko dute, formatu



tradizionalak gaindituz; gure ikusleekin jardungo dira lanean, eta bestelako inguruneetara hurbilduko gaituzte, hemen zein nazioartean. Zentroak behar diren baliabideak eta espazioa jarriko ditu; eta artistek programazio-ildo berriak jorratu, eta aukera emango digute ikusle-komunitate zabalgoengana iristeko.

### Nazioarteko sareak zabaldu

Sorkuntzari laguntza emateko ildo berean, [Egonaldi Artistikoen Programak](#) baldintza egokiak eskaintzen dizkie sortzaileei, material eta espazio aldetik, Zentroak dituen programei eta ekintza-ildoei lotuta dauden proiektuak garatzeko. Aldi berean, hurbileko sorkuntza-ehuna nazioarteko kultura-inguruneekin lotzen du, eta truke, erlazio eta lankidetzara iraukorra eta elkarrekikoak bilatzen ditu.

Zentroko zuzendaritzara iritsi nintzenetik, lankidetzako sare berriak ehundu nahi izan ditut, kultura garaikideko beste espazio eta proiektu batzuekin jarduteko nazioartean. Alemaniako [ZKM](#) eta [DortmunderU](#) arte-zentroak, [Dansatellier](#), Rotterdameko dantza garaikideko zentroa, Carlos Garaikoak Habanan duen [Artista x Artista](#) proiektua eta, hemendik aurrera,

Angoulêmeko [Cité internationale de la bande dessinée et de l'image](#) dira, besteak beste, gure sareko kide diren erakundeetako batzuk. Harreman horrek aukera ematen digu edukiak aberasteko, kulturako sorkuntza garaikideari ekarpena egiteko, eta komunitatea sortzeko, gizarteari esperientzia berriak eskainita. Bestalde, hizketan ari gara Quebec-eko eta Brasilgo espazio kulturalekin, nazioartean kultura garaikideko lankidetzako sareak zabalitzeko.

Ildo horretan, [Lantegia](#), [Ideien Laborategia](#), [Berrikuntza](#) eta [Sormena](#) espazioen proiektatutako Egonaldien Zentroa bultzada berritua da, aukera ematen baitie artistei prozesu eta proiektu artistikoak garatzeko eta ekoizteko. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko Lantegia espazio berrian, gizartea harremanetan jarriko da kultura garaikidearekin, berrikuntzari eta sorkuntza esperimentalari beste begirada batez behatuz. Espazio honek lekua izango du herritarren eguneroko proposamen artistikoetarako, eta kulturako eta sorkuntzako industrien arlo artistikoak aukera izango du garatzeko. Hori guztia artistei, agenteei eta, era berean, ikusleen komunitateei lotuta.

Irailean, atek zabalduko ditugu Zentroko egoiliarren lantoki diren espazio horietan, ikusleek ikus dezaten non eta zertan aritzen diren. Elkargune horretan, sortzaileek lantzen ari diren proiektuak aurkeztu, eta proposamen horiek sortzeko prozesuak partekatuko dituzte bisitariekin.

////////////////////////////////////  
[Zentroko zuzendaritzara iritsi nintzenetik, lankidetzako sare berriak ehundu nahi izan ditut, kultura garaikideko beste espazio eta proiektu batzuekin jarduteko nazioartean.](#)  
 //////////////////////////////////////



## Espazio berriak esploratzeko, lantzeko eta aurkezteko

Hiruhileko honetako programazioan gertaera garrantzitsu bat dugu, 2019-2023 Proiektu Programan sartuta: zubiak sortu, eta Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko espazioak zabaldu, eta kultura-programazioarekin lotuko ditugu, arte-sorkuntza garaikidearekin duen harremanaren bidez. Igerilekua, terraza eta Mediateka espazio egokiak izango dira programazio-eredu hibridoak eta formatu berriak esploratzeko, lantzeko eta aurkezteko, ikusleen komunitate guztiengana iriste aldera.

Hiruhileko honetan, [Néstor Lizalde](#) jarriko du abian Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko terraza, [Akelarre elektrikoa](#) instalazioa erakutsita. Artista honen lanak baliabide berriak deitutakoen bidez artearen munduan azaldu diren aukera berriak ikertzen ditu, eta horrela hizketaldi bat sortzen du esperimazio teknologikoaren eta tradizio artistikoaren artean, eta elkarketa horretatik sortzen diren mintzairak ikertzen ditu. [Pablo Esbert Lilienfeldek](#) eta [Federico Vladimir Strate Pezdirecek](#) Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko igerilekurako sortutako [Itsas hondoan](#), [dragoi bat](#) interbentzio artistikoan, Atariko argizuloa agertoki berria izango da, dantzaren, kirolaren eta zientzia fikzioaren arteko bide erdian dagoen igeriketa sinkronizatuko konposizio honetaz gozatzeko.

Era berean, saltokia bere paretetatik atera, eta Zentroko beste toki batzuetara hedatuko da, hain zuzen, Atarira bertara, erakusketa-aretoko atarera eta auditorioko irteerara. Espazio/saltokiaren ikuskera berri bat, artisten kolektiboak aukera izan dezan ekoizpenak aurkezteko eta diseinuari eta sorkuntzari lotutako jarduerak programatzeko,

[Naiara Goikoetxea](#), [Leire Ulbeltz](#) eta [Susana Blasco](#) artistek Arriquirar fatxadan egindako interbentzio artistikoak eta

datozen hilabeteetan denon artean Atarian eraikiko dugun [Identidata](#), [identitatei buruzko proiektu kolektiboa](#) dira Zentrotik hedatutako programazioaren parte, bai eta [Iván de la Nuez](#) komisarioak gidatutako [Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa](#) erakusketa ere, artearen aukera narratiboari buruz hausnarketa egiten duena, artea genero literario gisa eta literatura erakusteko aukera modura hartzen duten 13 artistaren obraren bidez.

Era askotara, erakusketa honek aditzera ematen du Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao zer den eta zer izan nahi duen: espazio fisiko eta hausnarketarako espazio bat. Igarotzeko toki bat, eta,aldi berean, egoteko leku bat. Esperimentatzeko eta proiektuak definitzeko zentro bat. Kultura garaikidea egunerokotasunetik esperimentatzeko toki bat.



Angoulêmeko Cité internationale de la bande dessinée et de l'image-n

# Kodeen mundutik egiteko dagoen pentsamendura

## Laugarren hiruhileko programazioaren aurrerapena

Kode digitalek eta datuek sortutako eta kontrolatutako mundu batean bizi gara. Ingurune programatu eta adimentsu batean bizi gara, eta inguratzen gaituen errealitateari buruzko informazioa ematen diguten sensoreek zuzendutako gidoi bat dugu.

Horiek gure munduak nola moldatzen dituzten erakustea, zer kode mota ditugun erakustea, horixe da urriaren 24an

inauguratuko dugun *Open Codes. We are data* erakusketaren helburua. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilboak eta teknologia berrietako artearen Europako zentro garrantzitsuenetako bat den ZKM | Center for Art and Media zentroak antolatu, eta Peter Weibel-ek pentsatu du erakusketa.

*Open Codes. We are data* sorkuntzako topaketak egiteko espazio esperimental



modura hartzen da, kode informatikoak ulertzeko jakintzaren eta ikuspegi artistikoen sorrera toki berean garatzeko.

Ahalegin bat da gaur egungo errealtateekin eragin-trukea izateko, eta etorkizuneko garapen-ildoak eta ikuspegiak erakusteko, horrela, gure mundua hobeto ulertu ahal izateko, datu-eremu bilakaturako mundu bat baita.

Kodeak eta hizkuntza informatikoak musika-lanetan hartzen dute forma, besteak beste, [Alex McClean](#) ikertzailearen bitartez. McCleanek musika esperimentalari buruzko [Hotsetan](#) programaren barruan parte hartuko du Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon. Britainiar musikagilea ezaguna da musika jardun gisa zuzeneko kodetzearen garapenean bete duen zereginagatik. [Sarah Rasines](#) soinu-artistak eta bereziki musika elektroakustikoaren eta inprobisazio librearen eremuan diharduen [Jean-Luc Guionnet](#) diziplinarteko artistak osatuko dute 2019ko azken hiruhileko programa; hiruhileko horren barruan sartuko dira, hain zuzen ere, soinu-sorkuntzaren eta inprobisazioaren topaketak. Taldeko ariketa praktikokoak izango dira, denbora errealean, non soinu-sorkuntzaren baliabide gisa baliatzen den entzumenaren kontzientzia, musika 'normalaren' bideetatik kanpo.

### Udazkeneko denboraldi eszenikoa

[Matarile Teatro](#) konpainiak emango dio hasiera udazkeneko antzerki-denboraldiari, urriaren 10ean, [Daimon y la jodida lógica](#) lanarekin, [Ana Vallés](#) eta [Baltasar Patiño](#)ren zuzendaritza artistikoarekin. Urtarrilean egindako deialdi publikoen bitartez hautaturako artistek –Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon egin zen horietako bat– interpretaturako dute lana.

Azaroaren 22an, [La tristura](#) taldeak [Future Lovers](#) aurkeztuko du: bizitzaren zentzua nerabezaroaren ikuspegitik. Gaztaroari, ametsei eta betetako helburuei eta bete gabekoei buruzko gogoeta. Abenduaren 1ean, [Aimar Perez-Gaika](#) dantzaren eta GIBaren arteko harremanari ekiten dio [The](#)



*Open Codes. We are data erakusketak datuek gure mundua nola moldeatzen duten azaltzen du*



[Touching Community](#) lanean. Eta [Suddenly III](#) lanarekin emango diogu amaiera programari; [Osa + Mujikak](#) osatu dute lana, segundo pare batez gelditu zuten gaituzten bultzada txikiei buruzkoa.

[Dantzaldia 2019 Nazioarteko Dantza Jaialdiaren](#) esparruan aurkeztuko dituzte beren lanak Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaon [Olivier Dubois](#) eta [Trevor Carlson](#) koreografoek; eta [Dantzan Bilaka 2019](#) programaren barruan, Euskal Herrian prozesu koreografikoak garatzeko elkarrizketarako eta gogoetarako gune horren hainbat tailer egingo ditugu.

Aurten abian jarritako [Fatxada](#), [Diseinua](#), [ilustrazioa eta komikia Proiektuan](#), [Susana Blasco](#) artistaren collageen ondoren, [Ane Pikaza](#) diseinatzailearen lana etorriko da, [Arrikibarko eroa](#), maitasun erromantikoari eta maitasunagatik egiten diren sakrifizioei buruzko gogoeta egitera bultzatuko gaituena.

Gure errealtateari buruz ikertzen eta sakontzen duten programen, eztabaiden, sinposioen eta proiektuen bitartez, azken hiruhilekoan [Hitza 22](#), egiteko dagoen pentsamendua programa jarriko dugu abian.

Pentsamendu garaikidea irudikatzen duten pertsonen elkargunea izango da. Errealtatearen ikuspegi periskopikoa, pentsalari eta intelektual anitzen bidezkoa.

[Gabonak Arte](#) haur eta familientzako esperientzia artistikoak programarekin emango zaio amaiera 2019 urteari, kultura garaikidean barneratzeko hainbat jardueraren bitartez eta, berdintasuna bultzatuz, kulturaren hizkuntza anitzen bitartez, hala nola: artea, antzerkia, musika, zinema, literatura eta kultura digitala.

# Barnera begira Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao Bilboko Gizarte eta Kultura Garaikideko Zentroa da, non edukiztaileak eta edukiak bateratu egiten dituzten arkitektura, historia eta sorkuntza artistikoa. Espazioaren eta programazioaren bidez esperimentatzeko eta gauzak aurkitzeko leku bat.

## Bisita gidatuen programa

Proiektu honen testuingurua ezagutzeko eta Zentrora datozen pertsonen esperientzia hobetzeko, bisita gidatuen programa bat egiten dugu, era askotako jende multzoetara egokitua eta talde



txikietarako antolatua, pertsonak modu aktiboan parte har dezaten.

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao hiri bat da, hiri baten barruan, eraikin, kale eta plaza publikoa eta guzti, bertan bizi delarik horietatik igarotzen den era askotako jendea. Zentro garaikide honek giroan gordetzen du bere funtsa, eta arteekin topo egiteko eta pertsonen arteko harremanetarako pentsatu da. Ereku ireki gisa, egoteko, esperimentatzeko eta igarotzeko leku bat da.

Bisita honetan proiektu honen intrahistorian barna ibiliko gara: nola pentsatu zen, Atariko 43 zutabeen zergatia edo zer gertatzen den eraikin honen azpian. Gainera, uztaiaz geroztik, terrazara joateko aukera emango dugu, Bilboren erdigunearen ikuspegi ezezaguna eskainiz, Bilboko Alhóndiga zer izan den eta zer den testuinguruan jartzeko: hiriko ardo, olio eta ozpinetako biltegia, 110 urterekin baino gehiago dituen. 2020an izango da, hain zuzen, Kultura Zentroaren hamargarren urteurrena.

### **Deribak Azkuna Zentrotik**

Espazioan eta pentsamenduan esperientzia desberdin bat izatea nahiago dutenek [Azkuna Zentroko Artista Azkide Oscar Gómez Matak Espe López](#) artistarekin batera landu dituen [Deribei](#) buruzko informazioa eska dezake Infopuntuan. Pasiera edo nora gabeko ibilaldi indibidual hauek partzialki gidatuta daude. Haien bidez, pentsamendua beste toki batera joaten da, beste era batez hautematen dugu inguratzen gaituena, eta behatzaile gisa sumatzen dugu geure burua.

Esperientzia artistiko honek aukera ematen digu gure tokiaz jabetzeko, inguruneke fluxuari dagokionez. Beste era bat da Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko esperientzia bizitzeko.



### **BANAKAKO BISITAK:**

Astelehena eta asteartea (gaztelaniaz):  
19:00

Osteguna (euskaraz):  
19:00

Bisita dohainik da, 45 eta 55 minutu bitarteko iraupena du, eta gutxienez bost lagun behar dira egin ahal izateko.

**Uztailaren 2tik irailaren 2ra** bisita hauek luzatzen dira ondorengo ordutegiarekin:

Asteleheneetik ostegunera:  
13:00 eta 19:00

Ostiral, larunbat eta igandeak:  
13:00

Euskara eta gaztelania

---

### **TALDEKAKO BISITAK:**

Bisita taldeka egin nahi baduzu (gehienez 25 lagun), asteko edozein egunetan egin dezakezu erreserba, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 19:00etara.

Prezioa 50 eurokoa da (25€ behar bezala eraturata dauden eta bisita hau beren jardueraren egutegian sartzen duten elkarteak)

### **Informazioa eta erreserbak:**

Infopuntuan (informazio gunea) eta 944 014 014 telefonoan.



# Sorkuntza garaikidearen kartografia

Artistak, komisarioak, kultura-eragileak... Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko programazioa diziplina desberdinetako pertsonen konplizitatearen emaitza da, haien gure proposamenak balioesten eta aberasten baitituzte, era askotako ikusleen komunitateei zuzendutako ekarpenekin.

Hiruhileko honetan gure artean izango ditugun proiektuak eta pertsonak erakutsiko ditugu hemen, aurrean abian jarri ditugun elkarriketen parte direnak.



Oskar Alegria  
Idazlea, kazetaria



Arrate Hidalgo  
Itzultzailea, editorea



Xabier Ekizia  
Soinu-artista



Alicia San Juan  
Kazetaria, abeslaria



Borja Crespo  
Zinema zuzendaria,  
artista



Laura Lazcano  
Kazetaria



Elizabeth Casillas  
Kazetaria, editorea



Espe López  
Artista



Oscar  
Gómez Mata  
Artista Az Kidea



Alaitz Arenzana & María  
Ibarretxe (Sra. Polariska)  
Artista Az Kideak



Tana Garrido  
Artista



Naiara Goikoetxea, Leire Urbeltz & Susana Blasco  
Irudigileak, artistak, diseinatzaileak



Jaiotz Osa & Sigrid Stigsdatter  
Mathiassen  
Koreografoak,  
dantzariak





Mabi Revuelta  
Artista



Kiko Faxas  
Artista



Guillem Nadal  
Artista



Valérie Mréjen  
Bideo-artista



Iván de la Nuez  
Komisarioa eta arte kritikaria



Glenda León  
Artista

© Max Andrews



Oier Etxeberria  
Artista



Cristina de Middel  
Artista, argazkilaria



Kurt Caviecel  
Artista



Gonzalo Elvira  
Artista



Xabier Salaberria  
Artista



Alicia Kopf  
Artista



Verónica Gerber Bicecci  
Artista



Joan Fontcuberta  
Artista, argazkilaria

© Teatro Praxillo



Pablo Esbert  
Lilienfeld  
Koreografoa, artista

© Teatro Praxillo



Federico Vladimir  
Strate Pezdirc  
Zinema zuzendaria,  
artista



UrbanBat  
Hiri-Berrikuntza Bulegoa



Nestor Lizalde  
Artista







# Pablo Esbert Lilienfeld eta Federico Vladimir Strate Pezdirc

*Itsas hondotan, dragoi bat*



*Itsas hondoan, dragoi bat* site-specific pieza igeriketa sinkronizatuko bi igerilarientzat sortutako konposizio bat da, Azkuna Zentroa-Alhóndiga Bilbaorentzat berariaz asmatua, dantza, kirol, eta zientzia fikzioaren arteko bide erdian kokatua. *Itsas hondoan, dragoi bat* piezak alderantziz jartzen du ikusleen ikusmen espaziala, ur azpian kokatzen baitu literalki. Igeritokiaren hondoan, halleko leihateen bidez, fikzioa inskribaturik duen pantaila baten gisakoa da: izaki fantastiko bat, transindibiduala, zatikatua eta likidoaren bidez konektatua, bi igerilarien bitan banatutako subjektibotasunak eratua.

***Itsas hondoan, dragoi bat* ikus- eta soinu-fabula bat da, eta hausnarketa egiten du norbanakoaren eta kolektibitatearen arteko harremanaz, koreografian, jatorrizko soinu-bandan eta argiterian oinarrituta.**

Lan hau *Dragoi Piezetako* bat da: lan-sail horretan, gogoeta egiten du kolektibitate-forma ugarienez, elkarrekin egoteko moduak irudikatuz, baina kolektibotasuna bereizitako norbanakoen batuketara hutsa izatera mugatu gabe.

*Itsas hondoan, dragoi bat*, Azkuna Zentroa-Alhóndiga Bilbaok ekoitzi du, eta *Dragón, descansa en el lecho marino* material soinu- eta koreografikoen site-specific bertsio bat da, 2018an 'Veranos de la Villa de Madrid-ek' ekoizita eta aurkeztutakoa.

Argi: Teatro Pradillo



**PABLO ESBERT LILIENFELD  
ETA FEDERICO VLADIMIR  
STRATE PEZDIRC** Madrigo Unibertsitate Konplutentsean ezagutu zuten elkar, Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasten ari zirela. Pablok

arte eszenikoetara jo zuen; Federico, berriz, arte bisualak aukeratu zituen. 2014. urtean berriz elkartu eta lankidetzan hasi ziren, arte bisualak, dokumentala, musika elektronikoa eta dantza lotzen zituen egitura bat eratuz. Lanean, espekulazioko fikzioak sortzen dituzte, nagusi diren narratiba normalitateko eteteko.

Gaur egun *Dragoi Piezak* lantzen ari dira, praktika desberdinen bidez –hala nola igeriketaren edo rol-jokoaren bidez– fikzio kolektiboen eta automatizazioaren arteko harremanaz hausnarketa egiten duen lan-saila.



**Uztailak 18 > 27**

**21:30 eta 22:00 (Bi emanaldi)  
Kulturen Ataria (Igerilekuko  
argi-zuloaren azpian)**



**FITXA ARTISTIKOA**

**Proiektua:**

Pablo Esbert Lilienfeld eta  
Federico Vladimir Strate  
Pezdirc

**Igerilariak:**

Julia Echeberria eta Andrea  
Fernández Botelho

**Jatorrizko musika:**

Pablo Esbert Lilienfeld

**Azkuna Zentroak ekoizitako  
pieza Veranos de la Villa,  
Madrid-en laguntzarekin**

**Esker onak:**

Maral Kekejian, AD Sincro  
Retiro eta Centro Deportivo  
Municipal de Vicalvaro



**Pablo Esbert Lilienfeld**

 [pabloesbertlilienfeld.com](http://pabloesbertlilienfeld.com)

 [@pabloesliii](https://www.instagram.com/pabloesliii)

 [Pablo Esbert Lilienfeld](https://twitter.com/PabloEsbertLilienfeld)

**Federico Vladimir Strate  
Pezdirc**

 [federicovladimir.com](http://federicovladimir.com)

 [Federico Vladimir Strate Pezdirc](https://www.linkedin.com/company/federico-vladimir-strate-pezdirc)

 [@federicovladimi](https://www.instagram.com/federicovladimi)

**Julia Echeberria**

 [@juliaechebe](https://www.instagram.com/juliaechebe)

**Andrea Fernández Botelho**

 [@andreafedz29](https://www.instagram.com/andreafedz29)



ARTE BIZIAK / DANTZA **IRA. 28** (lar.)

# Olivier Dubois

*My body of coming forth by day*

Dantzaldia 2019. La FuNdiciOn-ren programa bat



Olivier Dubois dantzari eta koreografoak *My body of coming forth by day* (2017) pieza aurkeztuko du Az-n, Dantzaldia programaren 2019ko edizioan.

**Lehenengo koreografia egin zuenetik hamabi urte igaro ondoren, Olivier Duboisek bakar-saio intimo bat eskainiko du, gorputzeko memoriaren zoko-mokoak eta istorio bat kontatzeko duen gaitasun artistikoa ikertzeko.**

Ikuskizun honetan, bera bakarrik arituko da agertokian. Artifiziorik eta planik gabe, koreografo eta dantzariak umorez jardungo du, azterketa, peep-show edota disezio baten itxura har lezakeen jolas batean. Berak ezarritako arauak betez eta ikusleek gidatutako ausazko prozesuari jarraiki, **Olivier Duboisek** bere ibilaldiaren hasieratik gaurdaino egin dituen hirurogei ikuskizunetako batzuei egingo die bisita. Egipto Zaharreko *Hildakoen Liburuan* inspirazioa hartuta, dantza-zatiz osaturiko bidaian hasiko da, artistarik onenaren bila, interpretatzailearen gorputzean zerk egiten duen maisulan bat aurkitzeko eta haren errailetan izan litekeen patua irakurtzeko.

Munduko dantzaririk onenetako bat dela uste da. Olivier Duboisek lan soila sortu eta interpretatzen du, bere interpretatzaile-gorputzaren dimentsio historikoa eta artistikoa ospatzeko. Lehen aldiz Europako FOGen aurkeztu zuen *My body of coming forth by day* lanarekin, Duboisek zalantzan jartzen du gorputzak bere burua artelan edo maisulan gisa irudikatze duen gaitasuna, dantzaren jardunak balio gabetean areagotua.



**OLIVIER DUBOIS**  
Dantzari eta koreografo  
frantziarra. 2011n, munduko

25 dantzaririk onenen artean sartu zuen Dance Europe aldizkariak. 1999an, lehendabiziko bakarkako lana sinatu zuen, *Under cover* izenekoa; eta, harrezkerotzik, Frantziako dantza garaikideko eszena astindu du, gaurdaino ezagutzen diren koreografia-lanik iraultzaileenetako batzuk aterata.

2014-2017 bitartean, Ballet du Nord zuzendu zuen, eta esperientzia handia du, sorkuntza, interpretazioa eta pedagogia uztartze



**Dantzaldia**, FuNdicOn-ak antolatutako Nazioarteko Dantza Jaialdiak bere hogeigarren urteurrena ospatzen du. Bi hamarkada, hiriko espazio desberdinak programazioz betetzen, harrera desberdinei eta formatuei bide emanez.



**Irailak 28, larunbata**

**19:30**

**Lantegia 1**

**12€ / 10€ Az Txartelarekin**  
**Sarrerak: Infopuntua eta**  
**azkunazentroa.eus**



**FITXA ARTISTIKOA**

**Produkzioa:**

COD - Compagnie Olivier Dubois

**Koprodukzioa:**

Festival Breaking Walls / Le Caire

**Artista bazkidea:**

Centquatre in Paris, COD COD - Compagnie Olivier Dubois bere konpainiarekin

**Laguntza:**

Kultura Ministerioa eta sorkuntza artistikoko Zuzendaritza Orokorra - Dantza Ordezkaritza



 [olivierdubois.org](http://olivierdubois.org)

 [dantzaldia.org](http://dantzaldia.org)

 [COD - Compagnie Olivier Dubois](https://twitter.com/COD_Compagnie_Olivier_Dubois)



## ARTE BIZIAK / DANTZA

# Ixiar Rozas

### Fonografía

Laborategia Dantzan Bilaka 2019

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao 2019ko Dantzan Bilakarekin elkarlanean arituko da. Ekimen hau Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailak sormen koreografikorako ematen dituen laguntzen deialdiarekin sustatutako eta ADDEk (Euskal Herriko Dantzako Profesionalen Elkarteak) kudeatutako jarduera da.

Aurtengo edizioko jardueren programa barne, *Fonografía* laborategiak, Ixiar Rozas (Lasarte-Oria, 1972), idazlearen eskutik. Hots, testuen ekoizpena, estrategia desberdinen bidez, hizkuntza-egoera ariketak eta metodologia konkretu bat ez ezik, pentsatzeko eta egiteko beste era baten bidez aztertuko da. Idaztearen berezko praktikan oinarritutako egiteko modua.

«Koreo-grafia, mugimenduaren idazketa.  
Fono-grafia, soinua eta ahotsaren idazketa,  
arnas aparatuarekin eta hizkuntzaren soinu-  
materiarekin lotuta» Ixiar Rozas.

## ARTE BIZIAK / MUSIKA

# Bilboko Udal Bandaren kontzertuak

### Irailak 13, ostirala

*Con cierto sentido de lo moderno*

Kontzertu hau proposamen askotarikoak eta dibergenteak bateratzen ditu, tradiziozkoa eta mundu garaikidea uztartzen dituztenak.

Zuzendaria: José R. Pascual-Vilaplana / Errepertorioa: F. Campos, M. Mendoza, A. Waignein, J.V. Egea eta A. Valeroren obrak.

### Irailak 27, ostirala

*Sensaciones desde Latinoamérica*

Bilboko Udal Bandak antolatutako Orkestra Zuzendaritzako Topaketan II. edizioko irabazle Luis Manuel Sánchez Rivas mexikarra da kontzertu honetara gonbidatutako zuzendaria.

Zuzendaria: Luis Manuel Sánchez Rivas

---

Uztailak 5, ostirala

10:00 - 19:00

Lantegia 1

Sarrerak: Infopuntua,  
azkunazentroa.eus

---

 @DBilaka

---



---

Irailak 13, ostirala

Irailak 27, ostirala

19:00

Kulturen Ataria

Sarrera dohainik

---



# Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa



Mabi Revuelta. *El influjo de la noche*



Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok ekoitzi eta *Iván de la Nuezek* komisariatutako *Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa* erakusketak artearen eta literaturaren arteko sinbiosia erakusten du, 13 artista hauen diskurtsoen bidez: Kurt Caviezel, Cristina de Middel, Gonzalo Elvira, Oier Etxeberria, Kiko Faxas, Joan Fontcuberta, Verónica Gerber Bicecci, Alicia Kopf, Glenda León, Valérie Mréjen, Guillem Nadal, Mabi Revuelta eta Xabier Salaberria.

Artista horiek denek onartzen dute artea genero literarioa dela eta literatura erakusketa-proiektua izan daitekeela, eta «erronka hartzen dute zera ulertarazten laguntzeko: liburua sekula baino biziago dagoela, baina ez zehatza delako, baizik eta eraldatzen delako. Ez da, ezinbestez, bere banakotasunaren ondorioa, baizik eta bere aniztasunarena. Eta ez da aldaezina delako, baizik eta egokitze gaitasuna duelako», nabarmendu du komisarioak.

XXI. mendeko kulturaren isla modura, erakusketa-proiektu honek artearen eta literaturaren arteko mugak ezabatu nahi ditu, hedatutako liburu bihurtu, ahozko erakusketa erakusketa bisual bilakatzeko.

***Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa* aldi berean da erakusketa bat, arteak eskaintzen duen aukera narratiboari buruzko gogoeta bat eta, azkenik, abentura hori kokatzeko espazio komun baten eraikuntza.**

Liburuen liburu bat da; begien bistako kontakizun bat, denbora errealean. Testua testura, hitza irudi, liburua display eta erakusketa literarioa erakusketa bisual bihurtzeko prozesu hori gardentzeko xedea duen esperientzia bat.

////////////////////////////////////  
**Martxoak 14 > Irailak 22**  
Erakusketa aretoa  
Sarrera dohainik  
////////////////////////////////////

**Ordutegia:**  
Astelehenetan itxita  
Asteartetik ostegunera eta  
igandeak:  
11:00 - 20:00  
Ostiralak, larunbatak,  
igandeak, jai-egunak eta jai-  
egun bezperak:  
11:00 - 21:00  
Uztailaren 1etik abuztuaren  
31ra, egunero:  
11:00 - 21:00

////////////////////////////////////  
**Bisita gidatuak:**  
Erakusketaren bisita gidatua  
(45')  
Ostegunero: 19:00  
Sarrera dohainik, aurrez  
Infopuntuan edo 944 014 014  
telefonoan izena emanda  
Gutxienez: 4 lagun  
Gehienez: 25 lagun

////////////////////////////////////

**KOMISARIOA:**  
Iván de la Nuez

**ARTISTAK:**  
Kurt Caviezel  
Cristina de Middel  
Gonzalo Elvira  
Oier Etxeberria  
Kiko Faxas

Joan Fontcuberta  
Verónica Gerber Bicecci  
Alicia Kopf  
Glenda León  
Valérie Mréjen  
Guillem Nadal  
Mabi Revuelta  
Xabier Salaberria

////////////////////////////////////

Erakusketak doako audiogida zerbitzua eskaintzen du zure bisita osatzeko. Entzun edo deskarga ezazu azkunazentroa.eus webgunean.

ARTE GARAIKIDEA / EGONALDI ARTISTIKOAK  
UZT. ETA IRA. (astr.)

# consonni radio AZ-rekin



consonni arte-arloko argitaletxe eta ekoiztetxeak, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko kolektibo egoiliarra den aldetik, [consonni radio con AZ](#) aktibatu du, hitzarekin eta irratia entzutearekin esperimentatzeko eta kultura kritikoa zabaltzeko. Hiruhileko honetan, [consonni radio con AZko](#) emankizun-zerrendan finkatuta dauden programek jarraipena izango dute, hain zuzen, hauek: *Voces en el jardín*, Alicia San Juanekin; *¿Qué haría Barbarella?*, Arrate Hidalgoekin eta Laura Lazcanorekin; eta *Cerca del cielo no se vive bien. Historias del Éter*, Xabier Erkiziarekin.

Gainera, deialdi publikoan hautatutako programa gehienak ere izango ditugu entzungai. Gabriel Villotaren *Voces que caminan* programak soinu-dokumentalaren eta saiakeraren arteko formatu hibridoa proposatzen du. Musikak, ahotsak eta landako grabazioak bateratuz sortutako soinu-collagea dago zati askotan; eta isiltasunaren bilaketan eta gorputzak mugitzean ateratzen duen soinuaren artean dabil.

*Phoenix Ragazza* Jone Uriarte eta Lur Olaizolaren lana da. Euskara hutsean egindako programa honek zinemaren eta irratia arteko erlazioa proposatzen du ikuspegi feministatik, begiak eta begirada entzute bilakatzeko. *Black surgery / Robar como un artista* Liben Svaart-en proposamena da. Zuzenean soinu-esperimentazioa egitea proposatzen du, kopiaren, pastixearen eta loop-aren artean, jada badauden musiketarik abiatuta musika-konposizioak sortzeko.

*Hacia dónde va la propiedad intelectual* Intangia elkartearen proposamena da. Emakumeen egoerari buruzko eztabaida jabetza intelektualaren eta autogestioaren arlora hedatu nahi du, eta atal batzuk ditu emakume sortzaileei tresnak emateko. *Contracómico* Borja Crespo eta Elizabeth Casillasen proposamena da. Komikian dauden beste mundu batzuk aurkitu nahi ditu: fanzinea, objektu artistiko gisa; autoedizioa, adierazteko modu gisa; tebeoa, aktibismo gisa....

**Entzun gure programa streaming bidez, edo zatoz saioaren bat zuzenean entzutera, Atarian dagoen gure irradi-estudio atseginean grabatzen ari garen bitartean. Gainera, online ere gaituzu entzungai, consonniren webgunean, Azkuna Zentroarenean eta ivoox moduko irradi-plataformen bidez.**

consonni



**Uztaila eta iraila**  
**Astearteetan**

**18:00**  
**Kulturen Ataria**  
**Sarrera dohainik**



-  [consonni.org](http://consonni.org)
-  [@consonniart](https://www.facebook.com/consonniart)
-  [@\\_consonni\\_](https://twitter.com/_consonni_)
-  [@\\_consonni\\_](https://www.instagram.com/_consonni_)
-  [consonni radio](#)



ARTE GARAIKIDEA / FATXADA PROIEKTUA. DISEINUA,  
ILUSTRAZIOA ETA KOMIKIA **MAI. 15 > UZT. 15**

# Naiara Goikoetxea

## *Hiru graziak*

Ilustrazioa



Naiara Goikoetxea artista grafikoak *Hiru graziak* izendatutako interbentzio artistikoan musika, artea eta skate-a batzen ditu. Hiru pieza independentez eraturako teknika mistoko konposizio bat. Lan hau, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko fatxadan dago ikusgai, maiatza, ekaina eta uztaila bitartean.

Naiara Goikoetxeak proiektu honetan ilustrazioa gailendu nahi du «komikiak eta diseinu grafikora gogorarazten digun hori, hainbeste miresten ditudan arteak». Artistak, hiru adierazpide hauetan oinarrituta dagoen eszena bat irudikatzen du pieza bakoitzean, iragana, oraina eta etorkizuna sinbolizatuz, sorkuntza, harmena, minberatasuna, zerua, lurra edota haizearekin batera. «Graziak, 'bizitza duen eder guztia' irudikatzen zuten eta graziak zintzotasuna, naturaltasuna, sinpletasuna ere esan nahi du. Niretzako hitz oso garrantzitsua da, eta lan honen izenburua izanik, eskerrak emateko modu bat ere bada,» azaltzen du.

Interbentzio artistiko hau, *Fatxada Proiektua*. Diseinua, *ilustrazioa eta komikia* kulturen Atarira ere zabaltzen du *Lux et veritas* piezarekin, espazio honetarako 'ad hoc' sortutako lana. Artelanak irudikatzen ditu sormena, modu sinbolikoan irudikatu ere, artea, argiaren eta bizitzan egindako egieren bilaketaren modura, eta dualtasuna, erreala eta irudimenezkoa, argiak eta itzalak aurrez aurre jartzen dituena.

Lan hau *smARTplaces* programako eta Azkuna Zentroa - Alhondiga Bilbaok Dortmund U (Alemania) arte zentroarekin lankidetzan egindako 'The Art of Skate' proiektuarekin konektatua dago. *Hiru graziak* proiektua, Skate munduaren diziplinartekotasun artistikoari buruz elkarrizketatzen duten bi testuinguru desberdinetan dago ikusgai aldi berean.



**NAIARA GOIKOETXEA** Arte Ederretan lizentziatu zen, eta Bartzelonan diseinu grafikoko masterra egin ondoren, Bilbon kokatu zen, arte-galeria batean

zuzendaritza- eta komisariotza-lanak egiteko. Gero, freelance gisa aritu zen, eta, gaur egun, lan pertsonala eta arlo profesionaleko lanak uztartzen ditu. Era askotako lanak eta teknikak jorratzen ditu: hala ilustrazioa, nola diseinu grafikoa edo fotografia, eta eskulana eta teknologia nahastuta. Musika, zinema eta skatea dira haren zaletasun handiak, eta sarritan islatzen dira haren sorkuntza-lanetan.

Gaur egun, lehenengo liburua idatzia eta ilustratua prestatzen ari da, eta berak ekoizitako musikarekin batera aterako du.



*smARTplaces* entzuleriak garatzeko kultura-lankidetzako Europako proiektu bat da, eta haren helburua da kultura eta artea hautemateko eta kontsumitzeko moduak iraultzea, teknologia digitala eta bitartekaritza kulturaleko forma berriak erabilia.



**Maiatzak 15 > Uztailak 15**

**Arrikibar Plaza (Fatxada)**

**Sarrera dohainik**



 @naigoik

 iamnai.com

**SMART  
PL/CES**

Co-funded by the  
Creative Europe Programme  
of the European Union



# Nestor Lizalde

## *Akelarre elektrikoa*

Argi-interbentzioa terrazan



Nestor Lizaldekin uda garaian esku hartuko du Azkuna Zentroa - Alhondiga Bilbaoko terrazan, eta *Akelarre elektronikoa* proiektua eskainiko du.

## Arte elektronikoko pieza honek, 44 arkuz osatutako Azkuna Zentroa - Alhondiga Bilbaoko terrazan esku hartu nahi du, ordenagailuz kontrolatutako argitze-sistema bat jarritz.

Argi-matrize bat, Bilboko eguraldirako prestatuta, espazio berezi honetako ezaugarri guztiez baliatzen dena: adreiluzko arkuen jarrera modularraz.

«Eguzkia ostenduta, argiak azalduko dira iluntasunaren babesean. Argi-matrizeak mugiarazi egingo du egitura, errituetarako espazio gisa paratutako jatorrizko 44 arkuk eratutako atala. Su elektrikoak lehian arituko dira elkarren artean, beren irudikapenak deskribatzeko, leize-zuloko mitoen gisa. Itzalek eta distira dirdaitsuek dantza egingo dute, gauaren mihisean formak zizelkatzen», aurreratzen du Nestor Lizaldekin.

////////////////////////////////////  
2019ko uztailak 4 > 2020ko urtarrilak 26  
Egunero: 20:00 - 23:00  
Terraza  
Sarrera dohainik  
////////////////////////////////////

////////////////////////////////////



**NESTOR LIZALDEREN** lanak artearen munduan baliabide berriak deitutako bidez azaldu diren aukera berriak ikertzen ditu.

Profil tekniko nabaria duen artista honek hizketaldi bat

sortzen du esperimentazio teknologikoaren eta tradizio artistikoaren artean, eta elkarketa horretatik sortzen diren mintzairak ikertzen ditu.


Nestor Lizaldekin ikerketa praktikoa egiten du, ikus-entzunezko forma eta euskarri berrien sorkuntzan oinarrituta, programazioa, diseinu elektronikoa, fabrikazio digitala eta irudiko sistema optikoak erabiliz. Proiektu hauen bidez, imaginario bat eraikitzen du, zientzia fikzioaren eta surrealismoaren arteko bide erdian, murgiltzeko unibertso bat, kezagarria eta, aldi berean, hipnotikoa.

////////////////////////////////////

# Identidata

## Identitateei buruzko proiektu kolektiboa

URart. smARTplaces programa europarreko proiektua





Uztailaren 4an, *Identidata, identitateei buruzko proiektu kolektiboa* instalazioa zabalduko dugu, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok eta hiri-berrikuntzako Urbanbat bulegoak ekoiztako proiektua.

*Identidata* instalazioak hausnarketa egiten du zenbait eragilek identitateen eraikuntzan betetzen duten zereginaz, etengabeko globalizazioko ingurunean. Datuak bistaratzeko gailu baten lana ere egiten du, eta gaur, hemen eta orain, gure identitatea eraikitzeke oinarritzat hartzen ditugun elementuetako batzuk erakusten.

**Bisitarien parte-hartzea joko plastiko baten modukoa izango da: pieza autonomoak elkarren ondoan jarriz egindako ariketa eraikitzaile bat, eraldatzen ari den mundu heterogeneo eta mutante bat irudikatzen duena, etengabe eta era kontzeptualean osatuz doana, herritarrek egindako ekarpenei esker.**

Forma aldetik bi ardatzen inguruan antolatuta dago: auzotik planetaraino doan eskala geografikoa eta identitatearen eraikuntzan funtsezkoak diren zenbait ildo. Identitateak bezala, instalazioa funtsezko bi faktoretan oinarrituta eraikitzen da: Narratiboki eraikitzen da, lotzen gaituzten istorioen bidez. Geure buruari buruzko kontakizun baten moduan. Zati indibidualak erabiliz eraikitako ipuin bat, aldaketak, desberdina dena, eta, orobat, gure antzekoa dena eta batzen gaituena antolatzen dituen.

Eta irudien bidez eraikitzen da. Irudi indibidualak eta gure taldearen edo gurekin konektatuta dagoen taldearen irudi kolektibo bat, geure buruaren luzapen bat izango balitz bezala. Istorioak eta irudiak, besteengandik bereizten eta antzeko bihurtzen gaituztenak.

*Identidata, identitateei buruzko proiektu kolektiboa* sorkuntza kolektiboko instalazio bat da, eta kultura-lankidetzako **smARTplaces** programa europarreko **URart** proiektuan sartuta dago. Sei herrialdetako zortzi museok eta sorkuntza-zentrok eratutako eta 2 ikerketa-bazkidek lagundutako sare bat da, eta haren helburuetako bat da kultura eta artea hautemateko eta kontsumitzeko era iraultzea, kultura-bitartekotzako forma berriak aktibatuz, audientziak baterako sorkuntzako prozesuetan parte har dezaten.

**Clara Boj** eta **Diego Díaz** artistek instalazioak batutako datuak interpretatuko dituzte Eguzkiaren Pantailan ikusgai egongo den interbentzio artistiko batean.

////////////////////////////////////

**Uztailak 4 > Irailak 27**

**Kulturen Ataria**

**Sarrera dohainik**

**Ordutegia:**

**Astelehenetik ostegunera:**

7:00 - 23:00

**Ostiralak:** 7:00 - 24:00

**Larunbatak:** 8:30 - 24:00

**Igandeak eta jaiegunak:**

8:30 - 23:00

**Bitartekaritza ordutegia:**

**Astelehenetik ostiralera:**

11:00 - 21:00

////////////////////////////////////

 [smartplaces.e](#)

**SMART  
PL/CES**

Co-funded by the  
Creative Europe Programme  
of the European Union



# Komisariotzaren nazioarteko sinposioa

*Erakusketaren saiakera (1977-2017)*

Bigarren topaketa (1987-1997)



*Erakusketaren saioa (1977-2017)* Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok eta Bulegoa z/b ekimenak elkarlanean landutako proiektu bat da. Haren bidez, 1977. eta 2017. urteen artean izandako erakusketa zehatz batzuk aztertu nahi dira. Horretarako, nazioarteko topaketa batzuk izaten ari dira, bakoitza hamarkada batean ardatzuta. Orain arte, bi topaketa izan dira: lehena, Atarikoaren formatuan, eta bigarrena, 1977. eta 1987. urteen arteko hamarkadari eskainia. 2019ko uztailaren 9 eta 10ean izango den topaketan, 1987-1997 hamarkadako kasuak aztertuko dira.

1987-1997 aldiko urteetan, hurrengo hamarkadetan eragin bizia izan zuten aldaketa batzuk jarri ziren abian: 1989an Berlingo harresia erori ondoren izandako berrantolamendu geopolitikoa eta, ondorioz, ideologiaren amaieraren aldarrikapena, globalizazioko prozesuen azkartzea, HIESAK eragindako krisia... Artearen arloan ere aldaketen prozesu hori nabarmen sentitu zen.

Euskal Herriari dagokionez, hamarkadaren hasieran, Arteleku jarri zen abian 1987an, Donostian; eta hamarkadaren amaieran, berriz, Guggenheim Bilbaok zabaldu zituen ateak hiriarren eredu global berri bati hasiera emanez, turismoa eta kulturaren kontsumoa erakarpen gisa hartzen dituen ereduari.

## PROGRAMA

### Uztailak 9, asteartea

- 17:00 Aurkezpena: Fernando Pérez eta Bulegoa z/b  
17:30 *Aimar Arriola. Urrutitik (txarto) ikustea: GIB/Hiesaren krisia berrikusten*  
18:30 *Rachel Weiss. Eskualdeko globalismoa: nola birdefinitu zuen eztabaida Habanako bienalak*  
19:30 *Joaquín Vázquez. Aginduzko ametsa eta Plus Ultra. Praktika artistikoak eta azpijoko politikoak 1992. urtearen inguruan*  
20:30 Debatea

### Uztailak 10, asteazkena

- 11:00-14:00 Comunicaciones  
17:00 Aurkezpena  
17:30 *Ines Schaber. Hiri-interbentzioak (1994)*  
18:30 *Corinne Diserens. Puente...de pasaje (Bilbo), mende laurden bat igaro ondoren*  
19:30 *Catherine David. documenta X (1997) komisarioarekin elkarriketa*  
20:30 Debatea  
21:00 Amaiera-ekitaldiko ardoa

Uztailak 9 eta 10  
Asteartea eta asteazkena  
Auditorioa  
Egun bat:  
10€ / 8€ Az Txartelarekin  
Bi egun:  
18€ / 15€ Az Txartelarekin  
Sarrerak: Infopuntua,  
azkunazentroa.eus



**Bule  
goa Z/B**

ARTE GARAIKIDEA / FATXADA PROIEKTUA. DISEINUA,  
ILUSTRAZIOA ETA KOMIKIA **UZT. 15 > IRA. 16**

# Leire Urbeltz

## *Las Partes de La Malinche*

Ilustrazioa



Leire Urbeltz artistaren obra izango da Arrikibar plazako fatxadan udako hiletan jarriko baita ikusgai. *Borderland* argitalpenetik ateratako erretratu hirukoitza proposatzen du Urbeltzek.

**Proiektua eratzen duten ilustrazioen artean, emakume ospetsu bati buruzko aurkako iritziak islatzen dituen erretratu bat dago: Malintxe da emakume hori.**

Asko idatzi da garai kolonialean Hernan Cortési esklabo gisa saldu zioten eta lehen mestizoaren ama historikoa izango zen emakume horri buruz. **Leire Urbeltzek** Marisa Belausteguigoitia irakasle feministaren *Las nuevas Malinches: Mujeres fronterizas* artikulua hartu du oinarritzat, eta erretratu bat proposatu du, Zentroaren fatxadan jarriko diren hiru olanetan zatitua. Alde batetik, Malintxe 'herri-saltzaile' traidore gisa agertzen da, konkistan Cortésen interpretatzaile, aholkulari eta bitartekari izandakoa.

Mexikon, 'malintxista' adjektibo gutxiesgarria bizkarreratzen zaio atzerrikoari lehenatasuna eman eta lurrekoa bazterten duen pertsonari. Bestetik, Malintxe biktima bezala agertzen da: herriaren saltzaile gisa azaldu ordez, saldua izan eta bizirik atera zen pertsona modura. Azkenik, Malintxe arraza berri baten ama mestizo bezala irudikatzen da.



**Uztailak 15 > Irailak 16**  
**Arrikibar Plaza (Fatxada)**  
**Sarrera dohainik**



 [leireurbeltz.com](http://leireurbeltz.com)

 [@Leireurbeltz1985](https://www.facebook.com/Leireurbeltz1985)

 [@leireurbeltz](https://www.instagram.com/leireurbeltz)

 [Leire Urbeltz](#)



**LEIRE URBELTZ** ilustrazio hedatua deitutakoaren mugak ikertzen ditu lanean. Bere lanik

personeletan, instalazioko material gisa jorratzen du ilustrazioa, eta hedatu egiten da, hala maila formalean nola kontzeptualean, sorkuntza garaikidearen konplexutasuna saihesten duten formula murriztaileak ezabatzeke.

Hala, bada, Urbeltzen lana lekualdatzen ari da etengabe, ez baita dituen posibilitateetan egonkortzen. Horren ordez, arte - arte ez denaren artean sortzen diren harremanak ikertzen ditu.



**Fatxada proiektua. Diseinua, ilustrazioa eta komikia-k,** Azkuna Zentroa-Alhóndiga Bilbaoko pareta nagusia sortzailentzako espazio bihurtzen du, hiriko bizitzan sarturik hizkuntza artistiko desberdinak erakusteko.

ARTE GARAIKIDEA / FATXADA PROIEKTUA. DISEINUA,  
ILUSTRAZIOA ETA KOMIKIA [IRA. 16](#) > [AZA. 15](#)

# Susana Blasco

Ilustrazioa



Susana Blasco diseinatzaile grafiko, ilustratzaile eta collage-egileak Arriko Plaza fatxadaren esku hartuko du 2019ko irail eta azaro artean.

Artista honek Azkuna Zentroa-Alhondiga Bilbaoko fatxada printzipalerako ideiatutako piezak, aitzakia bat dira esperimentatzeko, nahasteko, asaldatzeko eta jolas, umore eta irakurketa bikoitzekin gozatzeko.

**Susana Blascok bidea urratu nahi du diseinuko lengoaiaren eta artistikoagoa den sentsibiltate baten artean, eta oroz gain nabarmenduz sortzeko prozesua, esperimentazioa eta ideien sorrera, nahasketa, gurutzaketak, ustekabe bat-egiteak eta ezinezko konbinazioak erabiliz.**

«Ilustrazioaren espazioa testuingurutik atera, eta beste formatu batzuetara eramaten duzunean, bat-batean ezusteko interesgarriak izaten dira. Eta ilustrazio horiek eraikin baten fatxadara eramaten badituzu, eta ikusten dituen jendeak bere buruari galdetzen badio, 'zergatik hori hori?', publizitatearekin batere zerikusirik ez duela; horregatik da hain interesgarria proiektu hau. Bat-batean, hiru erakusle hori dituzu, nahi duzuna kontatzeko», azaldu du proiektu honetaz.

////////////////////////////////////

**Irailak 16 > Azaroak 15**  
**Arriko Plaza (Fatxada)**  
**Sarrera dohainik**

////////////////////////////////////

 [susanablasco.com](http://susanablasco.com)

 [@SusanaBlasco](https://www.facebook.com/SusanaBlasco)

 [@descalza](https://www.instagram.com/descalza)

 [Susana Blasco](#)

////////////////////////////////////



ahantzura eta emakumea ikertzeko, eta, maiz, merkatu txikietan lortutako argazki zaharrak edo aurkitutako objektu txikiak erabiltzen ditu abiaburu gisa.

Bestalde, lotura berezia du geometriarekin, zatiketarekin, errepikapenarekin, ordena konpultsiboarekin, eta zuri eta okrearen inguruko gama kromatiko berezi batekin.

**SUSANA BLASCOK** interes berezia du memoria, denbora, iragana, oroitzapenak,

////////////////////////////////////

**Fatxada proiektua. Diseinua, ilustrazioa eta komikia** Zentrotik hedatzen da, eta beste espazio batzuekin jartzen da harremanetan, esaterako, AzShopekin, parte-hartzen duten artistek egindako piezak aurkitu ahal izango baitituzu hor.

# Garazi Ansa, Marc Badal eta Laura Vallés

Komisario Berriak

**KOMISARIO  
BERRIAK**



[Komisario Berriak \(KB\)](#) deialdi publikoa 2016. urtean sortu zen, komisariotza-praktika euskal ingurunean garatzeko eta alor horretan profesional berriak sendotu daitezen bultzatzeko. Azkuna Zentroan egiten ari den bigarren edizio honek (2018-2019) laguntza ematen jarraitzen du, kuradore-proiektuak gure lurraldean agerian jartzeko, hain zuzen, azken hamarkadetan Euskal Herriari lotutako jarduera artistikoen inguruan egin diren ikerketa-proposamenak ikustarazteko.

KB edizio berri honek arreta berezia jartzen die zenbait proiektuari, zehazki, komisarioaren eginkizunaren dimentsio historikoari eta narratiboari erreparatzeko garrantzia barneratzen duten lan-ildoak abian jartzera bideratutako horiei. Ildo horretan, hiru ikerketa-kasu aurkezten ditu, [Garazi Ansak](#) (Oiartzun, 1989), [Marc Badalek](#) (Bartzelona, 1976) eta [Laura Vallések](#) (Castelló, 1984) garatutakoak.

[Garazi Ansaren](#) ikerketak artearen eta aktibismoaren arteko harremanak berraztertzea proposatzen du, hirurogeita hamarrekoko hamarkadaren amaieran mugimendu feministak Euskal Herrian egindako lanaren eta artisten praktikekin dituen harremanen ikuspegitik.

[Marc Badalen](#) proposamenak aztertzen du «naturaren eta landa-ingurunearen idealizazioa kanon kultural modura», Vicente Ameztok eta beste artista batzuek eraikitako imajinariotik abiatuta.

Eta, azkenik, [Laura Vallések](#) ZEHAR eta Arena argitalpenen (Espainiako Estatuan laurogeiko hamarkadara hurbiltzeko funtsezko aldizkari) jarrera kritikoetara eta jarduteko moduetara hurbiltzea planteatzen du, arte garaikidearen teoriatik eta kritikatik abiatuz.

[Komisario Berriak](#) proiektua batera garatzen dute Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok, CCI-k, Tabakalerak (Donostia) eta Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro Museok.



[Irailak 19 > Azaroak 17](#)

Lantegia 2




 [Garazi Ansa](#)

 [@Lauravalvil](#)

# Irudikatutako hiria

Zinemaren bidez hiri bat eraikitzeko saioa



Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko Zinematekak 'zinema eta hiria' binomioari ekiten dio zinema garaikideko ziklo honetan. Programa honetako luzemetrai eta dokumentalek atea zabaltzen diote gure imaginazioari eta gonbit egiten digute hiri utopiko hori osa dezagun irudien bidez.

**Monopoly bat izango balitz bezala, Oskar Alegria zikloaren komisarioak deskribatzen duenez, filmez osatutako hiriko mapa bat «eraikiko eta proiektatutako» da. «Gure irudira eta antzera eraikitako hiria, non dokumental garaikidea erabiliz hausnarketa filmikoa planteatu nahi den gizakiaren asmakuntzarik handienetako bati buruz: Greziako polisa. Izan ere, 2050ean mundu osoko hiru biztanletatik bi halako batean biziko dela uste da».**

«Le Corbusier-ek esan zuenez, hiriak zerua eta espazioa ditu, altzairua eta zementua izan aurretik; eta zero horren eta espazio horren artean banatzen diren ametsak izango dira arretagune nagusiak gure kaleen eta eraikinen trazatuan. Gianfranco Rossiren *Sacro Gra (2013)* filmean ageri diren ametsak eta biztanleak; film horrek poetikotasun handiz deskribatzen baitu Erroma barnean hartzen duen ingurabide handia, non hiri eternoa murrueetatik kanpo hasten den dardarka eta taupadaka. Harekin bilduko dugu gure zikloaren azken mapa», azpimarratzen du komisarioak.

## PROGRAMA

**Maiatzak 15, asteazkena / 19:30**  
**Maiatzak 16, osteguna / 17:30**

**Forever (2006)**  
95' / Holanda / Dokumentala  
Z: Heddy Honigmann

**Maiatzak 22, asteazkena / 19:30**  
**Maiatzak 23, osteguna / 17:30**

**Plaza de la Soledad (2016)**  
78' / Mexico / Dokumentala  
Z/G: Maya Goded

**Maiatzak 29, asteazkena / 19:30**  
**Maiatzak 30, osteguna / 17:30**

**Mur(s) Rue de la Santé (2004)**  
59' / Frantzia / Dokumentala  
Z/G: Myriam Aychaquer

**Ekainak 5, asteazkena / 19:30**  
**Ekainak 6, osteguna / 17:30**

**Derakht (The tree) (2015)**  
14' / Iran / Dokumentala  
D/G: Roya Eshraghi

**+ Hotel Nueva Isla (2014)**  
71 / Kuba / Dokumentala  
Z: Irene Gutierrez

**Ekainak 12, asteazkena / 19:30**  
**Ekainak 13, osteguna / 17:30**

**Women in sink (2015)**  
36' / Israel / Dokumentala  
Z/G: Iris Zaki

**+ East Hastings Pharmacy (2012)**  
47' / Frantzia / Dokumentala  
Z: Antoine Bourges

**Maiatzak 15 > Uztailak 4**  
**Asteazkenak eta ostegunak**

**Golem Alhóndiga Zinemak**  
4,5€ / 3,5€ Az Txartelarekin  
Sarrerak: Golem Alhóndiga  
Zinemako txarteldegian eta  
golem.es

## INFORMAZIOA

Film guztiak jatorrizko bertsoian proiektatuko dira, gaztelaniaz azpititulatuak (JBGA). Zinematekako programazioan azken orduko aldaketak egon daitezke.

+ INFO: [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)

Zinema-aretoa filma ematen hasi baino 15 minutu lehenago zabalduko da. Ikusleei mesedez eskatzen diegu minutu batzuk lehenago etortzeko, txartelleihatilan ilarak saihesteko. Gainerako ikusleekin errespetuz jokatzeko, behin saioa hasi ondoren, ezin izango da aretora sartu. Azkuna Zentroa ez da bere kudeaketatik kanpoko edozein arazoirengatik programazioan izan daitezkeen aldaketen erantzulea.

**Ekainak 19, asteazkena / 19:30**  
**Ekainak 20, osteguna / 17:30**

**Le bois dont les rêves sont faits (2015)**  
144' / Frantzia / Dokumentala  
Z: Claire Simon

**Ekainak 26, asteazkena / 19:30**  
**Ekainak 27, osteguna / 17:30**

**Intimidades de Shakespeare y Victor Hugo (2008)**  
89' / Mexico / Dokumentala  
Z: Yulene Olaizola

**Uztailak 3, asteazkena / 19:30**  
**Uztailak 4, osteguna / 17:30**

**Sacro Gra (2013)**  
93' / Italia / Dokumentala  
Z/G: Gianfranco Rossi



# Zinemaren historiako 50 harribitxi

## Zikloaren hirugarren zatia zuzendaritzan ardaizen da eszenaratzeko lanaren hiru maisu aurkeztuz

Zinematekak aurrera jarraitzen du, *Zinemaren historiako 50 harribitxi* zikloarekin, areto ilunean berreskuratzeko modukoak diren film ahaztezinetan barna egiten ari garen ibilbide apetatsu honetan. Zerrenda pertsonalatzeko, nabarmendu nahi izan ditugu kameraren aurrean eta atzean talentuz beteriko pertsona-taldeen egin dituzten film handiak. Hil honetan zuzendariak dira protagonistak berriz ere.

Zikloaren atal honetarako, eszenaratzeko lanetan maisu izandako hiru zuzendariren filmak hautatu ditugu, zinemaren historiako garai desberdinetakoak. Besteak beste, hiru zuzendariek konformismo eza dute bereizgarri: beti saiatu dira narratzaile gisa izan dituzten berezko mugak gainditzen.

Hasteko, Roman Polanski dugu, bere lan onenetako batekin: *Rosemary's baby* (1968). Mia Farrow eta John Cassavetes protagonista dituen beldurrezko drama hau Ira Levinen eleberrian oinarrituta dago, eta Polanskik Estatu Batuetan egin zuen bigarren filma izan zen. Polanskik Urrezko Maskorra irabazi zuen Cannesen 2002an, eta zuzendari onenaren Oscar saria ere bai. Ez du Estatu Batuetako lurrik berriro zapaldu, adin txikiko bat bortxatzea leporatu, eta 1978an herrialdetik ihes egin zuenetik. Gaur egun Frantzia bizi da.

Herrialde horretako zinemaren inguruan Joaquim Jordà zenak aipatzen zuenez, Jean Renoir-en zinema Borgoinako ardo-botila baten parekoa zen: 'frantziar' modura ulertzen dugunaren esentzia. Nekez uler daitekeen ezaugarri hori hainbat filmetan aurkituko dugu, esate baterako, hautatu dugun *La Grande illusion* (1937) filmean -gerraren aurkako film zoragarria- edo *Une partie de champagne* (1936) lanean. Nouvelle Vague belaunaldiak maisu handizat zuen zuzendari honek ez zuen zalantzarik izan ikusmirak harago eramateko, eta Estatu Batuetan (esate baterako, *This land is mine*, 1943) eta Indian (*The river*, 1950) jardun zuen zuzendari-lanetan.

Asian, berriz, Akira Kurosawa maisua nabarmendu zuten mendebaldean inspirazioa bilatzen zuelako; izan ere, bera da ziurrena Japoniako zuzendaririk ezagunena. Bagenuen aukera Dostoievski, Gorki, Tolstoi edo Simenon inspiraziotzat hartuta egin zuen filmen bat aukeratzeko, edo *King Lear* filmaz moldatu zuen bertsoa -*Ran* (1985)-; baina, azkenean, Macbeth lanaz egin zuen bertso bereziarekin gozatuko dugu, Toshiro Mifune protagonistak gogoangarria duen *Kumonosu-jô* (1957) filmarekin.

## ZINEMATEKA PROGRAMA

Uztailak 3, asteazkena / 17:00  
Uztailak 4, osteguna / 19:30

**Splendor in the grass (1961)**  
Distira belarrean



Kansaseko herri batean, giro sozial desberdinetako bi gaztek elkar maite dute, eta elkarrengandik sekula ez banatzea erabaki dute. Haien senideak ez daude ados, eta, azkenean, haien sentimenduekin zerikusirik ez duten interes batzuek erabakiko dute haien patua.

124' / 35 mm / Estatu Batuak  
Z: Elia Kazan / G: William Inge  
A: Natalie Wood, Warren Beatty, Pat Hingle, Audrey Christie, Barbara Loden

Irailak 18, asteazkena / 17:30  
Irailak 19, osteguna / 19:00

**Rosemary's baby (1968)**  
Rosemaryren haurra



Woodhousetarrak New Yorkeko senar-emazteak dira, Central Parken parean dagoen eraikin batera joan dira bizitzera, eta

adiskide baten esanetan madarikazio bat duen eraikina da. Etorrizun ona izango dutela-eta, Woodhousetarrek haur bat izatea erabakitzen dute.

136' / Estatu Batuak  
Z: Roman Polanski / G: Roman Polanski (Eleberria: Ira Levin)  
A: Mia Farrow, John Cassavetes, Ruth Gordon, Ralph Bellamy, Sydney Blackmer

Irailak 25, asteazkena / 17:30  
Irailak 26, osteguna / 19:45

**La grande illusion (1937)**  
Ilusio handia



Arg: Rialto Pictures

Adiskidantzari eta giza harremanei buruzko obra, Gerra Handian alemaniar kontzentrazio-esparru batean dauden Frantziako preso batzuen eguneroko bizitza islatzen duena.

114' / DCP / Frantzia  
Z: Jean Renoir / G: Jean Renoir, Charles Spaak  
A: Jean Gabin, Erich von Stroheim, Pierre Fresnay, Marcel Dalio

Irailak 25, asteazkena / 19:45  
Irailak 26, osteguna / 17:30

**Kumonosu-Jô (1957)**  
Throne of Blood / Odolezko tronua



Arg: Toho Pictures

Japonia feudala, XVI. mendea. William Shakespeareren *Macbeth* lanaren moldaketa. Taketori Washizu eta Yoshaki Miki jeneralak borroka batetik garaile datozela, amona arraro batekin egin dute topo bidean, eta horrek iragartzen die Washizu Iparraldeko Gazteluko jauna izango dela.

110' / 35mm / Japonia  
Z: Akira Kurosawa / G: Akira Kurosawa, Ryuzo Kikushima, Hideo Oguni, Shinobu Hashimoto (Obra: William Shakespeare)  
A: Toshirô Mifune, Isuzu Yamada, Takashi Shimura, Akira Kubo, Hiroshi Tachikawa

## INFORMAZIOA

Film guztiak jatorrizko bertsoian proiektatuko dira, gaztelaniaz azpiztitulatuak (JBGA).

Zinematekako programazioan azken orduko aldaketak egon daitezke.

+ INFO: azkunazentroa.eus

Zinema-aretoa filma ematen hasi baino 15 minutu lehenago zabalduko da. Ikusleei mesedez eskatzen diegu minutu batzuk lehenago etortzeko, txartelleheihaitilan ilarak saihesteko.

Gainerako ikusleekin errespetuz jokatzeko, behin saioa hasi ondoren, ezin izango da aretora sartu.

Azkuna Zentroa ez da bere kudeaketatik kanpoko edozein arrazoiengatik programazioan izan daitezkeen aldaketen erantzulea.

## LABURDURAK

Z: Zuzendaria | G: Gidoia | A: Aktoreak

## ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

# Udako Golem

## Zinemarik onena JBGAn

Uztailaren 5etik abuztuaren 15era, [Udako Golem](#) programa itzuliko da Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaora, eta 20 filmen aukera eskainiko digu, sortu ziren bezalaxe, jatorrizko bertsoian azpigituluekin, tituluak sei egunean behin txandakatuz, ordu desberdinetan.

Proposamen erradikalak dira, «gure ustez gozamenek ikusteko bigarren aukera izatea merezi dutenak, film dokumentalen hautu bikaina, zinema-aretoko iluntasunean ikusteko asmatua eta gauzatua», Golem Alhóndiga zinetakoek diotenez.

[Udako Golem](#)-ek proposamen hauek egiten dizkigu: Europako zinema, zientzia fikzioko estreinaldiak, proiektzio komertzial gehien duten izarrak, eta, lehenengo aldiz, Zinezko Ikuskizunak atala, zinemagile ospetsuen ikuskaria eskaintzen diguten bost dokumentalekin.

---

Uztailak 5 > Abuztuak 15

Golem Alhóndiga Zinemak

5,5€

Astelehena: 4,9€

Asteazkena: 4,5€

Sarrerak: Golem Alhóndiga Zinemako txarteldegian eta [golem.es](#)

Informazio gehiago: [golem.es](#)

---

**golem**









# Tana Garrido

## *Nace parda y se blanquea*

Tana Garrido artista (1989) *Nace parda y se blanquea* proiektua lantzen ari da, Azkuna Zentroa - Alhondiga Bilbaok Carlos Garaicoa Estudioaren (Habana) *Artista x Artista* programarekin elkarlanean duen praktika artistikoen egonaldian.

Sortzaileak dioenez, ikus-entzunezko behatoki bat da, bi ekintza-esparrutan zabaldua: Kubako egungo etxeko espazioa eta tabakoarekin eta azukrearekin ehundutako harremanak; eta iragan kolonialeko aztarnak euskal jatorriko pertsona batzuen oroimenean.

Artistak azaldu duenez, «bi alderdi horien azterketa familia-kontakizunaren bidez egituratzen da, eta harremanetan jarri nahi ditu ikus-entzunezko praktika kolektiboak eta jakintza ekoizteko formak, errepremitutako subjektibotasunak, isildutako istorioak eta menpean hartutako jakintzak dokumentalismoaren bitartez berreskuratu eta balioetsi ahal izateko».

Tana Garridok bi fasetan garatuko du proiektua: Lehena Habanan, ekain-uztailean; bigarrena Azkuna Zentroan, urteko azken lau hilabeteetan.



Tana Garrido. *Retouched*



Lehenengo aldian, Kubako eguneroko bizitza eta pertsonen artean izaten diren harremanak behatzeko ariketa bat jasoko du bideoan. «Jakintza ekoizteko forma kolektiboak finkatu nahi ditut, oraina -iragana dena- ulertzeko, ikuspegi feminista kritiko dekolonial batetik. Prozesu kolektibo horietaz gain, aldi berean, neure behatokia gauzatuko dut bideoan, hiru arlo nagusi hauek ardatz hartuta: etxea, lana eta Kubako komunitatea, eta arreta bereziz aztertuko ditut tabakoaren eta/edo azukrearen erabilerarekin harremana duten praktikak».

Bestalde, aldi berean, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok eta Carlos Garaicoa estudioak Kuba aldeko artista bat hautatuko dute, haren proiektua Alhondiga Bilbaon garatu dezan, Tana Garridorekin harremanean. Bi egonaldien emaitza aurkezteko, erakusketa bat antolatuko da 2020an.



---

**Sabadell**  
Fundación

Fundación Banco Sabadellék egonaldi artistikoen Amphitryon programa babesten du, artea eta kultura sustatzeko eta hedatzeko duen programaren barruan.



Praktika Artistikoen egonaldia euskal hizkuntza eta kultura mundu osotik zabalteaz arduratzen den Etxepare Euskal Institutuaren laguntza du.

Dantza garaikidea

Elkarlanean:



# Jaiotz Osa eta Sigrid Stigsdatter Mathiassenek dantza garaikideko beren egoitza egingo dute

**Jaiotz Osa** euskal koreografoak eta **Sigrid Stigsdatter Mathiassen** daniar koreografoak irailean egingo dute dantza garaikideko beren egoitza Azkuna Zentroa - Alhondiga Bilbaon. Egoitza honek, Dansateliers Rotterdam sorkuntza eta dantza garaikideko erakusketa zentroarekin elkarlanean, zentroaren programazioarekin bat egingo duten proiektuak osatzeko baldintza materialak eskaintzen dizkie sortzaileei.

Bi fase edukiko ditu egoitza honek: lehenengo fasea Azkuna Zentroko guneetan egingo da, 2019ko irailean; eta bigarrena, berriz, 2020. urtearen hasieran, Dansatelier-en (Rotterdam).

## **Jaiotz Osa**

Jaiotz Osa, dantzaria eta koreografoa, OSA+MÚJKA konpainiako kidea da. Jaiotz Osa eta Xabier Mujikaren topaketa artistikoaren ondorioz sortu zen konpainia, eta bi mundu sortzaile batzen ditu, dantza eta eszenografia/jantziak.

**Loserr** proiektua egingo du bere egoitzan, milenialei, beren gizarte harremanei,

sareekiko mendekotasunari eta gizartearen itxaropenei buruzko gogoeta.

## **Sigrid Stigsdatter Mathiassen**

Beste alde batetik, Sigrid Stigsdatter Mathiassen koreografo, performer eta bokalistak (1990, Danimarka), Dansateliers sorkuntza eta dantza garaikidearen erakusketa zentroak hautatuta, Jaiotz Osarekin elkarriketan landuko du bere proiektua

Sigrid Stigsdatter Mathiassen (1990, DM) koreografoa, performerra eta bokalista da. SNDO-n amaitu zituen ikasketak (School for New Dance Development – AHK) Remembrance soloarekin. Sortzaile gisa, Sigridek tresna modura erabiltzen ditu hitzak eta mugimenduak, errealitatearen eta imaginazioaren arteko mugak lausotzeko.

Azkuna Zentroa - Alhondiga Bilbaon egingo duten egonaldian, beren piezaren sorkuntza prozesua erakutsiko dute artista batek zein besteak irailaren 19ko ate irekien jardunaldian, Zentroko gainerako egoiliarrekin batera.



Jaiotz Osa. Suddeny



Sigrid Stigsdatter Mathiassen. Dansateliers

**Sabadell**  
Fundación

Fundación Banco Sabadellek egonaldi artistikoen Amphitryon programa babesten du, artea eta kultura sustatzeko eta hedatzeko duen programaren barruan.



Praktika Artistikoen egonaldia euskal hizkuntza eta kultura mundu osotik zabaltzeaz arduratzen den Etxepare Euskal Institutuaren laguntza du.

# Ateak zabalik sorkuntza artistikorako

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok era askotako ekimenak antolatzen ditu, ikerketa, sorkuntza eta ekoizpena sustatzeko zuzeneko eta erakusketako arteen inguruan, artelanen ekoizpena bultzatzeko eta herritarrengana hurbiltzeko, hala egindako obra nola sorkuntzako prozesuak erakutsiz.

Sortzaileak zentrokoe espazioan daudenez, aukera dugu ikusteko nola prestatzen duten proiektua, nola partekatzen duten lana taldeko beste kideekin, zertan aritzen diren Azkuna Zentroan egunero. Sortzailea hor egoteak balio gehiago ematen dio espazio publikoari, espazioan esku hartzen duelako, eta programazio hedatua eskaintzeko aukera ematen digulako; helburua ez da ikuskizun bat eskaintzea, baizik eta prozesua, praktika, aurreko eta ondoko egoera, interes publikoaren berme gisa.

Horregatik, irailaren 19an, artista egoiliarren espazioetako ateak zabalduko ditugu, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok, Artiumek, Tabakalerak eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak sustatutako [Komisario Berriak](#) proiektuaren inaugurazio-egunean (Informazio gehiago 40. orrian).

Egun horretan, beren espazioetako ateak zabalduko dituzte proiektuen work in

progress-a ikusteko: [Jaiotz Osa](#) eta [Sigrid Stigsdatter Mathiassen](#) dantza garaikideko artista egoiliarrek, [Tana Garrido](#) praktika artistikoetako egoiliarrek, [consonni](#) argitaletxe eta ekoiztetxeak [consonni radio con Az](#) irratsaioarekin kolektibo egoiliar gisa, eta [Oscar Gómez Mata](#) eta [Sra. Polarioiska Artista Az Kideek](#).

## Dantza garaikidea

[Jaiotz Osa](#) koreografo eta dantzariak egonaldian garatzen ari den [Loser](#) piezaren sorkuntza-prozesua erakutsiko du. Soloak hausnarketa egiten du millennial baten gogoan dagoenaz eta sentsazio horrekin bizitzeko moduz. Xabier Mujikarekin batera eratutako OSA+MÚJIKA konpainiako kide gisa, kolektiboa bere mugimendu eta mintzaira berezia bilatzen ari da.

Euskal koreografoarekin harremanetan, Danimarkako [Sigrid Stigsdatter Mathiassen](#) koreografo, performer eta bokalistak –Dansateliers sorkuntza eta dantza garaikideko erakusketa-zentroak hautatuak– lantzen ari den proiektuaren lagin bat aurkeztuko du. Sortzaile gisa, Sigridek tresna modura erabiltzen ditu hitzak eta mugimenduak, errealitatearen eta imajinarioaren arteko mugak lausotzeko.

## Praktika artistikoak

Tana Garrido artistak *Nace parda y se blanquea* proiektuaren 'work in progress'-a erakutsiko du, Carlos Garaicoa Estudioaren (Kuba) *Artista x Artista* programarekin elkarlanean proiektuaren lehen aldia Habanan amaitu ondoren.

Bigarren fasean Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon murgilduta, artistak bi ekintza-esparrutan egindako ikus-entzunezko behaketan bildu duen materiala moldatuko du: Kubako egungo etxeko espazioa eta hor ehuntzen diren harremanak, tabakoaren eta azukrearen erabileraren bidez aditzera emanak, eta iragan kolonialeko aztarnak euskal jatorriko pertsona batzuen oroimenean.

## Kolektibo egoiliarra

consonni arte-arloko argitaletxe eta ekoiztetxeak, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko kolektibo egoiliarra den aldetik, *consonni radio con Az* abiarazi

du, hitzarekin eta irratia entzutearekin esperimatzeko eta kultura kritikoa zabaltzeko. consonniren proiektuaren funtsa irratia da, eta formula kritiko gisa darabil, hala eduki kulturala taldean prestatzeko nola ezagutzera emateko.

## Artista Az Kideak

Oscar Gómez Mata artista kideak *Catálogo de derivas* proiektua egiteko prozesua eta ondorioak azalduko dizkigu. Udan egindako jarduera honetan, hainbat deriba izan dira, eguneroko hiri-paisaien behaketa eta esplorazioa lantzeko.

Bestetik, *Sra. Polaroiska* kolektiboak, genero-ikuspegitik erreferenteak sortzeko eta ahalduzko duen lan-ildoari jarraiki, *Consejo de sabias* proiektuaren lehen topaketa aurkeztuko du. Zikloak sei topaketa ditu guztira, arlo desberdinetako profesionalak diren adineko emakumeekin, jakintza biltzeko eta partekatzeko.



Ateak zabalik, jardunaldia 2018









# HEZKUNTZA PROGRAMA



## IKASTETXEEKIN ITUNDUA

61 David Hornback. *Gogo zatiak*. PlayTime Laborategia

## HAURRAK ETA GAZTEAK

62 Robotika, programazio eta bideojokoen diseinuko tailerrak

63 JokuPlay

## PUBLIKO GUZTIAK

60 Kultura digital eta teknologiako laborategia



## Kultura digital eta teknologiako laborategia

Suspergintza Elkarteak eta Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok sustatutako [Kultura digital eta teknologiako laborategi](#) berriak 2019ko irailaren 16tik abenduaren 14ra arte zabalduko ditu atea, Azkuna Zentroko Lantegian.

Herritarrek zabalik izango dituzte espazio honetako atea; edozeinek izango du aukera hurbiltzeko eta teknologiak probatzeko, esaterako, fabrikazio digitala, programazioa edo elektronika. Bestalde, [Kultura digital eta teknologiako laborategia](#) toki egokia da hausnartzeko eta zalantzan jartzeko zer-nolako eragina duen teknologia garaikideak gudan.

Laborategiko programazioak atal hauek ditu, besteak beste: teknologia espezifikoko tailerrak, prestakuntzako zikloak teknologia-arloko arrakalak eta joerak leuntzeko, hitzaldiak, aurkezpenak eta programa berezi bat familia asmatzaileentzat. Parte hartzeko ez da beharrezkoa aurrez ezer jakitea; aski da ikasteko eta probatzeko gogoak izatea.



**Irailak 16 > Abenduak 14**

**Lantegia 2**



**Sustatzaileak:**

Suspergintza eta Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao

**Lankideak:**

Fundación Mutua Madrileña,  
Diputación Foral de Bizkaia,  
BBK



## PlayTime Laborategia

### Mabi Revueltaren proiektua

**David Hornback:** Gogo zatiak

*PlayTime Laborategia*, artearen izaera aztertzen duen programa –arteaz egazagutzaren eta eraldaketaren eremutzat hartuta–, Mabi Revueltak asmatua eta zuzendua, urrian itzuliko da, **David Hornback** argazkilariaren proposamen berri batekin: *Gogo zatiak*.

Laborategi hau gidoi beraren inguruan egituraturakotako prozesuen sorta bat da, artista desberdinek -nork bere interes profesionalen esparrutik- egindako hezkuntza-proposamenen modura antolatuta.

Laborategi honen helburua da kameraren aurrean hiru minutuz sortzen den espazio eta denbora 'tarte' hori aztertzea, baina gaur egungo tresna bat erabiliz: telefono mugikorra. Erretratua egiten zaien bitartean, jabetuko dira beren gogoaren jarioaz, gorputzari ez zaionean mugitzen uzten. Beren pentsamenduen eta ideien oharren bitartez, eta modu grafikoan beren irudiarekin nahastu eta gero, parte hartzaileek gogo eta gorputz zatiak berregituratuko dituzte, beren niaren konstelazio berriak sortzeko.



**Urriak 15 eta 16**  
**Astartea eta asteazkena**

10:00 - 11:30

Erabilera askotarako aretoa

Hizkuntza: Gaztelania eta ingelesa

Ikastetxeekin itundua

2. Hezkuntzara eta Batxilergora zuzenduta

Informazioa eta erreserbak:

944 014 014 /

azkunazentroa@azkunazentroa.eus



**SMART  
PL/CES**

Co-funded by the  
Creative Europe Programme  
of the European Union



## Robotika, programazio eta bideojokoen diseinuko tailerrak

Camp Tecnológico etapa berri bat jartzen du abian Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon, kultura eta arte digitaleko hainbat jarduerarekin 3D inprimagailuen laborategian, TBko grabazio-espazioan eta online irrati digitalean. Jarduerak Atariko Tech espazioan eta Mediateka BBKn izango dira, Zentroko kultura-programazioarekin bat eginda, eta STEAM (Sozietatea, Teknologia, Ingeniaritza, Artea eta Matematikak) proiektuetan oinarritutako ikasketa-prozesuetara berariaz bideratuta.

Ekainean eta uztailan, udalekuak antolatuko ditu 8 eta 17 urte arteko neska-mutilentzat, gai hauek ardatz hartuta: bideo-jokoak, Robloxekin programatzea, Unity ikastea, Mariomark sortzea, konsolak eta IOT proiektuak egitea.

Abuztuan eta irailean, besteak beste, 'Kids&tech', 'Inventor Lab Junior: Star Wars' eta 'Inventor Lab Genius: Avengers' tailerrak izango dira, 4 eta 17 urteko neska-mutilentzako jarduerekin.

////////////////////////////////////  
Camp Tecnológico  
Kulturen Ataria  
Informazio gehiago eta izena  
emateko:  
[camptecnologico.com](http://camptecnologico.com)  
Telefonoa: 686 510 900  
////////////////////////////////////



## JokuPlay

### Mediateka BBK-ko jolasgunea

JokuPlay, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko jokoari eskainitako espazioa da. Gailu mugikorrek, kontsolak eta ordenagailuak ditu, indarkeriazkoak edo sexistak ez diren jokoekin plataformetan jokatzeko. Horrez gain, bideo-jokoek buruzko bibliografia espezializatua dago eskuragarri, eta etxerako mailegurako diren bideo-jokoen bilduma zabal bat ere bai.

JokuPlayk bideo-jokoen sorta bat eskainiko du uda honetan, bidaiatzeko, esploratzeko eta aurkitzeko.

#### Broken Sword: Director's Cut (PC)

Garai guztietako joko klasiko bat, hainbat BAFTA saritarako izendatua. Jokoan, Nico Collard kazetari ausarta eta George Stobbart ipar-amerikar adoretsua intrigaz eta arriskuz beteriko bidaiak misterioz beteak murgilduko dira.

#### Rime (PC)

Esploratu gabeko uharte bat zabalduko da zure aurrean. Esploratu Rimeko mundu ederra eta gogorra. Zure asmamena eta gaintzeko nahia eta azeri bat izango dituzu laguntza bakar gisa, uhartea esploratzeko, dorreko goialdera iristeko eta hobeto gordetako sekretuak azaleratzeko.

#### The Trail: Frontier Challenge (PC)

Bideo-joko honetan, abenturazale baten azalean sartuko gara. Baso, mendi, ibai eta lakuak bidezidorretatik ibiltzen da, Eden Falls hiriarren bila.

#### Old Man's Journey (PS4)

Burua hausteko moduko abentura introspektibo honetako istorioak bizitza, galera eta itxaropena ditu ardatz. Izan eragin-trukea inguruan duzun munduarekin, paisaiari forma eman, eta zaharrak ibili beharko duen bidea sortzeko.

Nintendo Classic Mini eskaintzen jarraitzen dugu nostalgikoentzat, 20 joko klasikorekin (**Donkey Kong Country**, **Final Fantasy III**, **Super Mario Kart**, **Satr Fox**, **The Legend of Zelda**, **Street Fighter II: Turbo**, **F-Zero...**)

Haurrek ere aukera izango dute bideo-jokoekin gozatzeko **Txikilanden** (1. solairua) **Aqua Panic! (PS3)** joko dibertigarriarekin. Laguntza eman beharko dute zikloi tropikal baten ondoren itsasoak lehorrera jaurtiriko otarrainxkak, olagarroak eta beste itsaski batzuk berriz itsasoratzeko.



#### Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera:  
9:00 - 21:00

Larunbat, igande eta  
jaiegunetan: 11:00 - 21:00

Uztailarik 7tik aurrera, igande  
eta jaiegunetan:  
10:00-14:00

14 urtetik aurrera  
Mediateka BBK. 2 Solairua  
Sarrera dohainik



Laguntzailea:









## AGENDA / UZTAILA

NOIZ	ORDUA	LANA/JARDUERA	+INFO
<b>MAR. 14</b> > IRA. 22		Erakusketa <i>Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa</i>	24. or.
<b>MAI. 15</b> > UZT. 15		Fatxada <b>Naiara Goikoetxea</b> <i>Hiru graziak</i>	28. or.
<b>UZT. 2</b> Asteartea	18:00	<b>consonni radio AZ-rekin</b>	26. or.
<b>UZT. 3</b> Asteazkena	17:00	Zinemateka. <b>Zinemaren historiako 50 harribitxi</b> <i>Splendor in the grass</i> (1961) <i>Distira belarrean</i>	46. or.
	19:30	Zinemateka. <b>Irudikatutako hiria</b> <i>Sacro Gra</i> (2013)	43. or.
<b>UZT. 4</b> Osteguna	17:30	Zinemateka. <b>Irudikatutako hiria</b> <i>Sacro Gra</i> (2013)	43. or.
	19:30	Zinemateka. <b>Zinemaren historiako 50 harribitxi</b> <i>Splendor in the grass</i> (1961) <i>Distira belarrean</i>	46. or.
<b>UZT. 4</b> > IRA. 27	Ikusi or.	Instalazio kolektiboa <i>Identidata, identitateei buruzko proiektu kolektiboa</i>	32. or.
<b>UZT. 4</b> > URT. 26	20:00 ∨ 23:00	<b>Nestor Lizalde</b> <i>Akelarre elektrikoa</i>	30. or.
<b>UZT. 5</b> Ostirala	10:00	<b>Ixiar Rozas</b> <i>Fonografia</i>	22. or.
<b>UZT. 5</b> > ABU. 15		<b>Udako Golem</b> Zinemarik onena JBGAn	47. or.
<b>UZT. 9</b> Asteartea	18:00	<b>consonni radio AZ-rekin</b>	26. or.
<b>9, 10 UZT.</b> Astr., astz.		<b>Komisariotzaren nazioarteko sinposioa</b> <i>Erakusketaren saiakera(1977-2017)</i>	34. or.

NOIZ	ORDUA	LANA/JARDUERA	+INFO
<b>UZI. 15</b> > IRA. 15		Fatxada <b>Leire Urbeltz</b> <i>Las Partes de La Malinche</i>	36. or.
<b>UZI. 16</b> Asteartea	18:00	consonni radio AZ-rekin	26. or.
<b>UZI. 18 &gt; 27</b>	21:30 22:00	<b>Pablo Esbert Lilienfeld eta Federico Vladimir Strate Pezdirc</b> <i>Itsas hondoan, dragoi bat</i>	18. or.
<b>UZI. 23</b> Asteartea	18:00	consonni radio AZ-rekin	26. or.
<b>UZI. 30</b> Asteartea	18:00	consonni radio AZ-rekin	26. or.

## AGENDA / ABUZIUA

NOIZ	ORDUA	LANA/JARDUERA	+INFO
<b>MAR. 14</b> > IRA. 22		Erakusketa <i>Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa</i>	24. or.
<b>UZI. 4</b> > IRA. 27	Ikusi or.	Instalazio kolektiboa <i>Identidata, identitateei buruzko proiektu kolektiboa</i>	32. or.
<b>UZI. 4</b> > URT. 26	20:00 ∨ 23:00	<b>Nestor Lizalde</b> <i>Akelarre elektrikoa</i>	30. or.
<b>UZI. 5</b> > ABU. 15		<b>Udako Golem</b> Zinemarik onena JBGAn	47. or.
<b>UZI. 15</b> > IRA. 15		Fatxada <b>Leire Urbeltz</b> <i>Las Partes de La Malinche</i>	36. or.

## AGENDA / IRAILA

NOIZ	ORDUA	LANA/JARDUERA	+INFO
<b>MAR. 14</b> > <b>IRA. 22</b>		Erakusketa <i>Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa</i>	24. or.
<b>UZT. 4</b> > <b>IRA. 27</b>	Ikusi or.	Instalazio kolektiboa <i>Identidata, identitateei buruzko proiektu kolektiboa</i>	32. or.
<b>UZT. 4</b> > <b>URT. 26</b>	20:00 ↓ 23:00	<b>Nestor Lizalde</b> <i>Akelarre elektrikoa</i>	30. or.
<b>IRA. 3</b> Asteartea	18:00	<b>consonni radio AZ-rekin</b>	26. or.
<b>IRA. 10.</b> Asteartea	18:00	<b>consonni radio AZ-rekin</b>	26. or.
<b>IRA. 16</b> > <b>AZA. 15</b>		Fatxada <b>Susana Blasco</b>	38. or.
<b>IRA. 19</b> Osteguna	17:00	<b>Jornada de puertas abiertas: Residencias artísticas</b>	54. or.
<b>IRA. 19</b> > <b>AZA. 17</b>		Erakusketa <b>Komisario Berriak</b>	40. or.
<b>IRA. 13</b> Ostirala	19:30	<b>Bilboko Udal Bandaren kontzertuak</b>	22. or.
<b>IRA. 17</b> Asteartea	18:00	<b>consonni radio AZ-rekin</b>	26. or.
<b>IRA. 18</b> Asteazkena	17:30	Zinemateka. <b>Zinemaren historiako 50 harribitxi</b> <i>Rosemary's baby</i> (1968) <i>Rosemaryren haurra</i>	46. or.
<b>IRA. 19</b> Osteguna	18:30	Zinemateka. <b>Zinemaren historiako 50 harribitxi</b> <i>Rosemary's baby</i> (1968) <i>Rosemaryren haurra</i>	46. or.

NOIZ	ORDUA	LANA/JARDUERA	+INFO
<b>IRA. 24</b> Asteartea	18:00	<b>consonni radio AZ-rekin</b>	26. or.
<b>IRA. 25</b> Asteazkena	17:30	Zinemateka. <b>50 joyas de la historia del cine</b> <i>La grande ilusion</i> (1937) La gran ilusión	46. or.
	19:45	Zinemateka. <b>50 joyas de la historia del cine</b> <i>Kumonosu-Jô</i> (1957) Throne of Blood / Odolezko tronua	46. or.
<b>IRA. 26</b> Osteguna	17:30	Zinemateka. <b>50 joyas de la historia del cine</b> <i>Kumonosu-Jô</i> (1957) Throne of Blood / Odolezko tronua	46. or.
	19:30	Zinemateka. <b>50 joyas de la historia del cine</b> <i>La grande ilusion</i> (1937) La gran ilusión	46. or.
<b>IRA. 27</b> Ostirala	19:30	<b>Bilboko Udal Bandaren kontzertuak</b>	22. or.
<b>IRA. 28</b> Larunbata	19:30	Dantzaldia 2019 <b>Olivier Dubois</b> <i>My body of coming forth by day</i>	20. or.

---

### BISITA GIDATUAK

#### Banakako bisitak:

Astehena eta asteartea (gaztelaniaz), 19:00

Osteguna (euskaraz), 19:00

Bisita dohainik da, 45 minutuko iraupena du, eta gutxienez bost lagun behar dira egin ahal izateko.

**Uztailaren 2tik irailaren 2ra** bisita hauek luzatzen dira ondorengo ordutegiarekin:

Astehenetik ostegunera: 13:00 eta 19:00

Ostiral, larunbat eta igandeak: 13:00

Euskara eta gaztelania.

#### Taldeko bisitak:

Bisita taldeka egin nahi baduzu (gehienez 25 lagun), asteko edozein egunetan egin dezakezu erreserba, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 19:00etara. Prezioa 50 eurokoa da (25€ behar bezala eraturta dauden eta bisita hau beren jarduera-egutegian sartzen duten elkarteak).

Informazioa eta erreserbak: Infopuntuan (informazio gunea) eta 944 014 014 telefonoan.

---

### Az TXARTELA

Az Txartelak aukera ematen dizu kultura, gizarte eta ariketa fisikoko jarduerak biltzen dituen eskaintza zabalaz gozatzeko gure zentroan. Zentroko Txartelarekin, jarduera guztien inguruko informazioa jasoko duzu aldizka, eta deskontu eta abantaila interesgarriak lortuko dituzu.

---

### IRISGARRITASUNA

Azkuna Zentroak espazio errespetuzko, ireki eta irisgarria izan nahi du orotariko pertsona eta komunitateentzat. Gure jardueretan errazago parte hartzeko laguntza teknikorik behar baduzu, eska iezaguzu.

---

### ORDUTEGIA

#### Kulturen Ataria

7:00 - 23:00

ASTELEHENA-OSTEGUNA

7:00 - 24:00

OSTIRALA

8:30 - 24:00

LARUNBATA

8:30 - 23:00

IGANDEA ETA JAIEGUNAK

#### Lantegia

Programazioaren arabera zabalduko da

---

---

## ORDUTEGIA

### Auditorioa eta Bastida Aretoa

Programazioaren arabera zabalduko da

### Mediateka BBK

9:00 - 21:00            ASTELEHENA - OSTIRALA

11:00 - 21:00        LARUNBATAK, IGANDEAK ETA JAIEGUNAK

**Uztailaren 7tik aurrea: IGANDEAK ETA JAIEGUNAK: 10:00 - 14:00**

### Ikasketa Aretoa

7:00 - 23:00    ASTELEHENA - OSTEGUNA    |    8:30 - 24:00    LARUNBATA

7:00 - 24:00    OSTIRALA                        |    8:30 - 23:00    IGANDEA

### Jarduera Fisikoko Zentroa

7:00 - 23:00            ASTELEHENA - OSTIRALA

8:30 - 23:00            LARUNBATAK, IGANDEAK ETA JAIEGUNAK

**Abuztuaren 1etik 31ra: Jarduera Fisikoko Zentroa itxita egongo da, gimnasioko makinak berritu, eta igerilekuaren urteko egokitzapen higieniko-sanitarioa egin behar delako.**

### Erakusketa Aretoa

ASTELEHENA ITXITA

11:00 - 20:00        ASTEARTETIK OSTEGUNERA ETA IGANDEAK

11:00 - 21:00        OSTIRALAK, LARUNBATAK, IGANDEAK, JAIEGUNAK ETA  
JAIEGUN BEZPERAK

**Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra: 11:00 - 21:00, EGUNERO**

### Jendearentzako arreta (Infopuntuan eta telefonoan)

8:00 - 22:00            ASTELEHENA - OSTIRALA

9:00 - 22:00            LARUNBATAK, IGANDEAK ETA JAIEGUNAK

### Infopuntua

8:00 - 22:00            ASTELEHENA - OSTIRALA

9:00 - 22:00            LARUNBATAK, IGANDEAK ETA JAIEGUNAK


### AzShop

9:00 - 21:00            ASTELEHENA - IGANDEA


---
















Azkuna Zentre



# Jar zaitetz harremanetan Az-rekin

azkunazentroa.eus  
info@azkunazentroa.eus  
944 014 014

PLAZA ARRIQUIBAR, 4  
48010 BILBAO



**B**

**Bilbao**

**gizartea eta kultura garaikidea**

**AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO**